

## Fondo EILASTASUNA 2009

DAJLA WILAYAKO EMAKUMEEN LANBIDE HEZIKETA ESKOLARAKO LAGUNTZA(2007-2009)

<b>Tokia</b>	Errefuxiatu sahararren Tindufeko (Aljeria) kanpamenduak	Bertako erakundea	Hilberri Gorri Sahararra
<b>Sektorea</b>	Dajla wilayako Lanbide Heziketa Eskolako emakumeak	Eskatutako zenbatekoa	3 urtetakoa: 11.452,94€ 2009rakoa: 6368,00€

### **Bertako erakundea:**

Dajla wilayako Emakumeen lanbide eskola 1999an Emakume Sahararren Batasun Nazionala (ESBN)k Portu zuen, AFAD Algeriako emakumeentzako elkarte batek kudeatu eta Errefuxiatuentzako Nazio Batuaren Goiko Komisionadoak (ACNUR) finantzatuta, atzerrira ikasketekin jarraitzera joateko aukerarik ez dituzten emakume sahararrek beraien prestakuntza hobetzeko.

Dajla wilayako emakumeei ofiziotako prestakuntza zabala eta duina ematea zen asmoa, beraien herriaren bizitza sozial, politika eta ekonomikoan parte hartu ahal izateko, bai eta egunerokoari erantzuteko baliabide propio edukitzeko ere. Alfonbra, tapiz eta ehungintzaz aparte, espezialitate berriak sartu dituzte: hizkuntzak, informatika, ile-apaintze eta edergintza, ikus-entzunezkoak eta eguzki-energia fotovoltaiakoko instalazioak. Nazioarteko elkertasuna eta laguntza, batetik, alfonbra-salmenta eta ile-apaintze praktiketatik kobratzen duten diru apurrak bestetik, horiei guztiei esker lortzen dute Eskola martxan mantentzea.

Eskolan emakumeekiko beste hainbeste ekintzak antolatzen dituzte hitzaldi eta mintegien bidez, emakumeek estrategiko dituzten interes handiko gaiak tokiko egitura politikoarekin beren partehartzea lotuta izanez.

Eskolarako laguntzak Ilberri Gorria Sahararra(IGS)ren bidez helarazten dira, bera baita kanpamentuetarako laguntza humanitarioaren planifikazio, koordinazio eta bideratze lanen arduradun.

### **Proiektua zertan den:**

Dajlako emakumeen lanbide heziketarako Eskolako gutxieneko baliabideak eraman eta mantentzea, bai eta prestakuntzarako materialak ere. Horretarako, sistema elektrikorako bateria berriak, eta ikastaroetarako lehengaiak: hariak, artileak, oihalak, argazki paperak, eta abar.; beste aldetik, irakasleek jasotzen duten pizgarri urria osatzeko diru pixka bat. Lanbide heziketaz aparte, proiektu honek emakumeen arteko harremanak bultzatu eta sakontzeko ere baliagarria da oso.

### **Zuzeneko onuraduna:**

Egun eskolan ikasten ari diren 102 emakume eta hiru urte hauetan eskolan sartuko diren beste hainbeste emakume.

### **Zeharkako onuraduna:**

Guztira, emakumeen lanak eta Eskolak, zeharka zein zuzenean, sei mila familia inguruan bizi arazten dituzte.

**Aurkeztutako aurrekontua 2009:**

<b>KONZEPTUA</b>	<b>KOSTU ZUZENAK €</b>
<b>Ekipoak eta materialak</b>	<b>5.000,00 €</b>
Ikus-entzunezko tailerrerako kamara	2.000,00 €
3 egurrezko telarrak	1.500,00 €
Tailerrerako materiala	1.500,00 €
<b>Tokiko pertsonala</b>	<b>1.368,00 €</b>
Irakasleentzako pizgarriak (12€ x 6 hil/19 irakasle x 72 €)	1.368,00 €
<b>Funtzionamendua</b>	<b>0,00 €</b>
<b>KOSTU ZUZENAK, GUZTIRA</b>	<b>6.368,00 €</b>

**Harremanak eta jarraipena:**

Ohartutako beharrianak Maima Mahamude, eskolako zuzendariak berak jakinarazi dizkio SEAD Lagunen Elkarteko proiektuetako teknikariari, azaroan eta abenduan kanpamentuetara joan denean; Carmen Mendigutxia, Gasteizko EILASTASUN kideak elkarren loturaz arduratzen da.